

# Nafarroakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko uztailaren 29a / IV. urtea / 137. zenbakia

## Donaixti, zutik Garikoitzekin

Garrantzi handia izan du asteburu honetan Donaixtin (Nafarroa Beherea) taularatu den pastoralak, hainbat arrazoirengatik: Zuberotatik kanpo egiten den lehena —ezagutzen delarik— izan delako; 3.500 lagun bildu zitu-elako bero zaparen azpian; eta San Mixel Garikoitz saintuari —batzuren ustetan euskal santu bakarra— buruzko lana zelako. Sei hilabeteko lana eman zuten horretarako donaixtiarrek, Junes Casenave zuberotarrak idatziriko lana taulartzeko, eta herri osoa astindu duela ezin uka. Ahaleginak izan zuen emaitza ona joan den igandean, eta beste emanaldi batzuk —tartean Nafarroako Jaialdietan bat— emango badituzte ere, estrainekoa da beti gogokoena. Baina pastoralaz beraz baino, herrian sei hilabete hauetan bizi denari buruzko kontakizuna ekarri nahi izan dizuegu hona, Donaixti zutik jarri zuen ahaleginaren ondorioa.



Pastoralaren hiru aktore, atsedenditxo batean.

LUZIEEN ETXEZAHARRETA

### Hilabete gorabeheratsua

**B**a dihoakigu uztaila bere festa eta beroekin eta berdintsu dator abuztua bereekin ere eta festa-giro apartekin hainbat herri ta hiritan. Eguerdia eta arratsalde itogarriak ere bai gauren batetan. Zerua eguzkitsua eta urdina orain eta estalirik eta euritsu laister. Gauza gutxi dira iraunkor. Datozen bezala joaten dira festak eta festaren pozak. Modu berean, joan-etorri azkarrak dituzte ere tristeziek, edo hobe esanda, etorri-joanak berehalakoak, inork

ezpaitu horrelakorik espero eta txarrak laister ahanzi beharrekoak direlako.

Gorabeheratsua da gure bizitza. Atzo pozik eta gaur negar. Gau algaraz saltoka eta bihar uzkur. Hala ere aurtengo uztailak inoiz baino umore-aldaketa handiagoa ekarri dit ordu gutxitan. Sanferminak aspaldiko partez ez bezala lasaitasun osoz pasatu nituen. Gutxitan jakin izandut zer den horrenbeste maite ditudan nire sanferminak lanik egin gabe bizitzea. Aurtan, en-

### Zubian barna

BINGEN AMADOZ



tzierroen kontakizuna besteentzat egitea bakarrik azken bi egunotako beharra izan zen. Gainerako jai-egunak niretzako izan ziren eta festekiko ditudan ha-

rreman estuak behar bezala lantzeko.

Jakina da norainoko garrantzia duen laguntasuna gure sanfermintean. Lagunen artekoak dira zalantzarik gabe Iruñeko jaiak, baita lagunak egitekoak, are gehiago, bizitza osorako lagunak egitekoak izan ohi dira sanferminak. Alde horretatik, aurtengoak aurrekoak baino txikiagoak izan dira niretzat eta benetan ez naiz damutzen, batez ere lagun baten desagerketak uzten duen hutsunea nolakoa den ezagutu ondoren. Lagun horrek etzuen desagertzeko inungo asmorik eta festak bitartean gora ta

behera ibili zen, ibili ginen, alai eta zoriontsu. Nork esan behar zuen Pobre de miren negar antzak hurrengo egunean egiazkoak izan behar zirela.

Hain gorabeheratsua izandako hilabetea bukatzeaz dagoela eta lagun baten aldentzeak uzten duen gabezi larria ezagutu ondoren prometatut diot nire buruari dohainik eskeintzen zaigun laguntasunaz sakonkiago eta sarriago profitatzea eta nik neuk eman dezakedan guztia eskaintzea ezpait dira agian nahikoak izanen lagun artean emandakoak inoiz hutsune bat gehiago geratzen bada.



## GURE AUKERAK

### ZINEMA



'Belle Epoque' filmea eskainiko dute heldu den asteko asteazkenean, abuztuak 3, Irurtzunen. Bertako Kultur Koordinakundeak antolatuta, gaueko 22.00etan hasiko da, Foru Enparantzan.

'Denboraren gibelean' izeneko pelikula eskainiko dute heldu den asteko ostegunean, abuztuak 4, Lakuntzan. Sakana Kultur Zikloaren barruan antolatuta, gaueko 22.00etan izango da, herriko plazan.

'Mi chica' izenburuko filmea botako dute asteburu honetan Erro, Subiza eta Zuñiga herrietan. Gobernuak antolatutako Herriz Herri egitarauaren barruan, gaur gauean Erron izanen dute ikusteko aukera, bihar larunbata, Subizan, eta igandean Zuñigan. Hiruretan gaueko 22.00etatik aurrera hasiko da, herriko plazan.

### MUSIKA



Ruper Ordorika abeslariaren kontzertua izanen da bihar larunbata, uztailak 30, Berako Kultur Etxean. Nafarroa Oinez antolatzaileek prestatua, gaueko 22.30etan hasiko da.

Def Con Dos eta Fliter musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar larunbata, uztailak 30, Lizarran. Herriko jaien aurreko ekitaldien artean sartua, zezenplazan izanen da, gaueko 22.30etatik aurrera.

### BESTELAKOAK



'Bienvenidos al Oeste' izeneko antzezlanaren taularatuko du asteburu honetan Kollins Klown taldeak Torralba, Muruzabal eta Murelu-Konde herrietan. Gobernuak antolatutako Herriz Herri programazioaren barruan, gaur gaueko 21.00etan Torralban ariko dira; bihar larunbata Muruzabalen izango dira, arratsaldeko 20.30etatik aurrera, eta etzi, igandean, Murelu-Konden, arratsaldeko 19.00etan hasita.

Tafallako Erraldoien Konpartsaren 75. urteurrena dela eta, Jaialdi berezia izanen da bihar, uztailak 30, herriko zezenplazan. Bertan, Uxo eta Tafallako abesbatzak, dantza taldeak, Tafallako Konserbatorioko orkestra, musika banda, txistulariak, gaiteroak, zanpantzarrak, jotak, Hilargi fanfarrea eta erraldoien Konpartsa ariko dira. Arratsaldeko 20.00etan hasita, sarrerak salgai daude Zubia eta Rosita tabernetan eta Intxauspe Kiskoan.

## NAFAR KRONIKA


GAIZKA ARANGUREN

### Xiberutar eta manexak

Aste honetan izan den ekitaldirik azpimarragarriena ez da politika edo ekonomiaren esparrutik abiatu. Ez da ere Nafarroa Garaian gertatu. Nire uste apalean, Donaixtiko pastorala izan da gertakizun guzien artean nabarmenena. Historikoa. 'Saint Mixel Garikoitz' pastorala euskal kulturaren historian urrats baten ikurra izanen da. Urrats geografikoa, alegia.

Baina Baxe Nafarroan alta. Joan den igandean Donaixtin bildu ziren 3.500 lagun horien artean xiberutarrik bazen, baina ez egon nahi zuten guztiak. Igandean, Donibane Garazin nintzela, hango gazte euskaldunen artean aipatzen zen gaietarikoa bat zen Baxe Nafarroan egin zen lehen Pastoral hura. Aunitzen erranetan, ez da Xiberura mugatutako ohitura baten apurketa, pirinio guztietako aintzineko

tarren' arrotasuna (Arrotasuna diot eta ez arrokeria). Zahar aunitzek herrialde hauen arteko muga gurutzatzeari uko egin zioten. Ezin zuten 'halako sofrikariorik' jasan. Zahar horietako batek Pagolako nire lagunari erran zionez, bera 'errepetizio jenerala' (entseiu orokorra) ikustera joanen zen, eta ez antzespen ofiziala. Izan ere, ekitaldi nagusian bertze xiberutar batek hura ikusiez gero erra-



Ez dakit nik garai batean Pastoral Euskal Herri guztian zehar hedatua zegoenentz. Jakin badakit, ordea, Xiberutarrek eginikoak direla ezagutu ditudan guztiak. 'Saint Mixel Garikoitz' ere, xiberutar famatu batek idatzi du, Junes Casenave-Harigilek hain zuzen. Antzestu duen herria eta Pastoralaren protagonista bertalde, Baxe Nafarroako Donaixtiko herritarak.

Bai, egia da, Donaixti ez da Xiberutik urrun, mugan baizik...

ohituraren berreskurapena baizik.

Ez zuten ikuspegi horrekin bat egiten, ordea, xiberutar guztiak. Pagolako lagun batek erraten zuen moduan, Xiberuko zahar aunitz biziki haserratuta ziren Pastoralaren hedapen horregatik. Nola onartu Pastoral batuz? Nola onartu Baxe Nafarroako herri batek Pastoral egitea? Baina... Manexak dira!!!

Ezagunak dira Baxe Nafartar eta Xiberutarren arteko lehiak. Ezagunagoa da 'egiazko xiberu-

nak ukanen zituen herrian. Manexen artean! Oto!

Xiberutar zahar horien jarrera ulergarria delakoan nago. Ez dut horrekin erran nahi Manexen Pastoralak 'jatorrizko izendapenik' gabekoak direnik; manexak direla baizik. Edozein ekitaldi kultural sinboliko edo jatorrizko produktu 'tipiko' bezala, hedapenak bere alde positibo eta negatiboa du.

Zer pentsatuko lukete Lantzekoek Arraitzeko ihauterian Mielotxin aterako balute?

### ASTEKO PERTSONAIK



Miguel Indurain  
Txirrindularia

Laugarren Tourra irabazi berri du Miguel Indurain Atarrabiako txirrindulariak; lau urtetan lau garaipen, ez da ez nolana hikoia. Parisen bertan omenaldia jaso ondoren, etxera itzuli eta etxekoekin ospatu nahi izan zuen txapelkunak azken garaipen hau, Atarrabia bere herrian lehendabizi eta Iruñean gero, agintariekin. Pozik agertu zen, irribartsu, eta heldu den urtean «gustatuko litzaidake berriro ere hemen egotea, horrek bosgarren Tourra irabazi dudala esan nahiko bailuke», aipatuz, jendearen txaloak jaso zituen. Hala ere, neke aurpegia ere sumatzen zitzaion, eta egun batzuk deskantsuan emanen zituela zioen. Hasieran harrigarria zirudiena egia bihurtu da eta gauzak horrela jarriz gero garaipen gehiago lortuko ditu Indurainek.



Jose Borrell  
Herrilan Ministroa

Itoizko Mahaia sortzea proposatu du aste honetan Jose Borrell Herrilan ministroak, hainbeste istilu, adierazpen eta arazo sortzen ari den gaia behingoz argitzeko. Ideia, berez, ona da; jakin beharko da, hori bai, zeintzuk osatuko duten mahaia, eta bertan erabakitzen dena benetan erabakigarria izanen den ala ez, baina proposamena bera ongi dago, arazoak elkarriketaren bidez kopontzen baitira. Bitartean, ordea, urtegiaren lanak aurrera doaz, geldoago bada ere, eta ministroak obrak «gertutik segitzen dituztela» esan arren, uda honetan aurrerapen handiak egin litezke. Europako Elkarteak izan da, Borrellek zionez, mahaia eratzeke idea izan duena, oraindik erabaki gabe baitu Itoizti buruzko kexa. Hainbeste atzerapen ondoren, ia asmatzen duen.

### AHAZTU GABE!

#### LA FURA DELS BAUS



La Fura dels Baus antzerki talde kataluniar ospetsuak 'M.T.M' bere azken antzezlanaren taularatuko du bi egunez Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Hurrengo astelehenean eta asteartean izango da emanaldi hori, gaueko hamarretatik aurrera. La Fura dels Baus taldea azken hamarkadako antzerki-fenomeno handietako bat da Espainiako estatuan. La Fura-ren sorburua animazioa-errealizazioa antzerkian duen konpainia honek, beraiek ederki asko esaten zuten bezala, mundu osoan onartu den lengoia eszeniko berezkoa sortu du.

Arrakasta izugarri eta berezi honen funtsa ikuslearen eta ikuskizunaren arteko harreman berrian datza. La Fura dels Baus taldearen muntaiek ikuslerik ez, baina partehartzaileak behar dute izan bereziki.

La Fura dels Baus antzerki taldearen proposamen eszenikoak ez dira ikusteko eginak, bizitzeko baizik, nola baitaiteko liturgiaren menpe egoteko.

### JENERO XUMEKOAK

#### Iruñeko Ferian

Iruñean dut nik senarra, ferian txerriak saltzen, bera handik den artean, gu hemen dantza gaitzen. Hori egia, Maria, daigun bi gira, baina nik dakidala Iruñean ez da txerriak saltzen.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Altsasu

Navarrerriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

# 'Mangajo' aldizkariaren azken alea aurkeztu dute gaztetxean

AMAIA AMILIBIA ALTSASU

'Mangajo' aldizkariaren hirugarren alearen aurkezpena egin zen igandean Altsasuko gaztetxean, bertako Antzerki Talde Esperimentalaren (GETA) laguntzarekin. 1992an sortutako aldizkariak komikiak ezezik ipuinak eta beste kontakizun motak ere dakartza, eta hau izan zen aldizkariaren jendeurreko lehen aurkezpena, izan ere, aurreko bi aleek ez baitzuten horrelakorik izan.

Igandeko ekitaldian, aldizkariaren monografikoarekin —telebistarekin, alegia— zerikusi handia zuen antzezlanaren taularatu zuten GETAko kideek, Koxkorron kolektiboaren laguntzaz, eta aurkezpenaren ondoren bertan bildu ziren hirurogei bat ikusle animazio eta marrazki bizidunen laburmetraiak ikusteko aukera izan zuten.

Irudia, soinua, argia eta musika lagunduriko antzezlanaren prestatu zuten GETAkoek 'Mangajo' aldizkariaren aurkezpenarako. Antzezlanak, 'Mangajo' aldizkariak argitaratu dituen hiru poemak zituen oinarri: 'Telecidio', 'La muerte en el salón' eta 'La voz del espíritu santo'. Eta horiek ziren aurkezpenarako prestatutakoaren hari nagusia, hiru antzezleek elkarriketa batzuk euskaraz tartekatuz bazituzten ere. Koxkorron ikus-entzunezko kolektiboaren



Igandeko antzezlanaren eszena bat.

AMAIA AMILIBIA

laguntza onuragarria izan zen, hauen hitzekin bat zetozen irudiak prestatu zituzten eta. Antzezpenak telebistaren alde kaltegarriak nabarmendu bazituen ere, bertan bilduriko gazte andanak barre egin ahal izan zuten munduko komunikabide mota hedatuena oinarri gisa hartzen zuten bost animazio laburmetrai bitxi eta originalekin.

'Mangajo' aldizkaria 1992ko

urrian kaleratu zuten lehenengo aldiz Leioako Kanpuseko (Euskal Herriko Unibertsitatea) talde baten ekimenez. Zero alean 'Mangajo-ko' lan taldea osatzen zuten hamabost lagunek nahi izan zituzten gaiei buruz egin zituzten beren lanak. Marrazki, ipuin, komiki, artikulua, idazlan eta kontaeraz beteriko aldizkaria osatu zuten eta geroztik bi ale gehiago kaleratu dituzte.

## Azkoien

### Familia ijito bati buruz udalbatza burutu zen asteartean

IRUNEA

Herrian etxebizitza erosi nahi duen familia ijito baten inguruan sortu den kezka dela eta, udalbatza ezohizkoa burutu zen asteartean udaletxean. Bertara bizilagun franko azaldu ziren eta askok bere kezak azaldu zituzten familia honen inguruan, ijito arrazako beste pertonekin izandako esperientzia txarrak direla eta. Horregatik, bizilagunak soluzio eske joan ziren udalbatzaren aurrean, baina hitz onak baino ez zituzten aurkitu.

Ordu t'erdiz, udaletxeko zinegotziek argi eta garbi azaldu zuten herrian ez dagoela pertsona bati bertan laketzeko traba jartzerik, baina familiak bertako ohiturekin moldatu beharra azpimarratu zuten. Horregatik, udalak segimendua egingo zuela azaldu ziren bizilagunei, eta prest azaldu zen etxebizitza bera herriko behartsuei ere erosteko. Udaletxean beti egon zen agerian arrazismoa hitza, baina denek garrantzia kendu nahi izan zioten.

## Elgorriaga

# Irin errota zaharra berritzen ari da Europako talde gazte bat

IRUNEA

Elgorriagak 190 biztanle inguru ditu baina uda hasi zenetik, zertxobait igo da kopuru hau. Izan ere, bertara hurbildu dira uda pasatzera eta, era berean lan egitera, Espainiako hainbat probintziatako berrogeita hamar bat gazte. Abuztuan berriaz, Alemania eta Frantziako gazteak, besteak beste, egongo dira Elgorriagan. Gazte guztiak, neska eta mutilak, herriko kultur etxean bizi dira auzolandegiak irauten duen bitartean.

Oporrak leku ezezagun batean

pasatzeko asmoz etorri dira Nafarroa aldera baina baita lan egiteko gogoz ere. Eta gogo handiz, antza, Elgorriagako irin errota zaharra berritzea baitute helburu. Errota XVIII. mendean eraiki zuten eta mende honen erdira arte izan zen martxan. Gazteak errota garbitzen eta ura hartzeko kanala konpontzen ari dira eta gainera, herriko ikuztegi-iturri bat ere berritzeko asmoa dute.

Gazteak goizeko 9etan gosalduta ondoren hasten dira lanean. Arratsaldeko hirurak aldera bazkaltzen dute eta arratsaldean, berriro lanera. Hala ere, dena ez

da lana, noski, eta tarteka badute ibaian bainu bat hartzeko denbora. Arteari eta ingurugiroari buruzko tailerrak ere egiten dituzte eta berritzen ari diren errota buruz informazio anitz bilatu eta aurkitu dute Elgorriagako artxibategietan.

Paco Labe da Elgorriagako auzolandegiko zuzendaria eta gazteentzat oso esperientzia polita dela uste du. «Gazteek egindako lanak, gainera, Elgorriagari mesede handia egiten dio», bere hitzetan. Paco Labe arkeologoa da eta 10 urte daramatza udako auzolandegietan.

## Azterketa soziologikoak

Gaiak soziologorik trebeenen arreta merezi du. Egunotan UEUko soziologia ikastaroan hizlari dabiltzan Ane Larrinaga, Xabier Aierdi, Iñaki Bartzena eta gainontzeko soziologo jakitunek aztergaitzat hartu beharko lukete. Edo agian ez, agian egokiago litzateke Mario Gabiria bezalako soziologo neutral batek aztertzea gaia, batetik bera iruindarra delako, eta, beraz, arazoa hobeto uler lezakeelako, eta bestetik, berak azterketa aurreiritzirik gabe eginen lukeelako arestian aipatutakoek ezbezala.

«Zein gairi eta zein azterketari buruz ari da alu hori?», galdetuko zenion jada zure buruari irakurle fina bezain azkarra zaren horrek. Bada, egin beharko litzatekeen azterketaren izenburua honako hau izanen litzateke: 'UEUko ikasleak Iruñeko Alde Zaharrean. Intratalde indisolublea lekuz kanpo'.

Inor azterketa egitera ausartuko balitz, Bergerrek, Weberrek eta Izpiritu Sainduak giza intrataldeen eta extrataldeen inguruan garatutako teoria mamitsuenen laguntza beharko luke; izan ere, zinez harrigarria da UEUko ikasleekin getatzen dena. Berdin dio hala bakarka nola taldeka, talde txikietan zein handietan hurbiltzen diren Alde Zaharrera. Berdin dio ahoa irekitzen duten hala ez. Berehalak sumatzen da Larraonatik heldutakoak direla. 'UEUkoak gara' lemadun pankarta daraman azafak besterik ez zaie falta. Are gehiago, badirudi euren kopetetan 'UEUkoa naiz' idatzirik daukatela. Hori, gainera, ez da soil-soilik ikasle kanpotarrekin gertatzen. Iruindar peto-petoei ere aurpegia aldatzen zaie Larraonan ikasle arituz gero.

Zer dela eta? Batek daki. Hori soziologoez esan beharko dute. Dena dela, UEUko ikaslea bazara, eta Alde Zaharrean zure izaera horren agerian ez geratzea lortu nahi baduzu, ez itzazu praka motzak jantzi. Bai, badakit Su Ta Gar eta EH Sukarra taldeko kideak oso guapo daudela euren praka motzekin. Haatik, zure praka berri-berri eta kasik lisatu berrien azpitik agertzen diren hanka zuri-zuriek 'UEUkoa naiz' oihukatzen dute.



**P**astorala munta handiko ikuskizuna da bisitariendako, ez da dudarik, baina are handiagoa da bertako herrikoendako. 300 biztanletako herri batean ehun bat lagunek sei hilabetez saioetan aritzeak adierazten digu nola bizi diren mugaz bestaldean horrelako ospakizunak. Aurten, gainera, Donaixti Nafarroa Behereko herriak izan du ohorea. Ahalegin frankori esker.


## Donaixti pastoralak bildurik

L. ETXEZAHARRETA / DONAIXTI

Joan zen igandean Donaixtiko ibarrean bildu jendetza handiak taulen gainean eta ikuskariaren antolakuntzan ia herri osoa bildua zela ikutatzen zuen. Sei hilabeteren lanak jendeen harremanak sakondu ditu. Herriaren biziaraztea elkarlan handiaren bitartez, Oztibarreko herri txikiaren etorkizunaren bestelaketa dela agertzen da.

Pastorala baten egiteko xedea herriari agertu ziolarik Junes Casenave-Harigilek, Altxaiko apaizak, bi 'biltzar nagusi' antolatu ziren herrian. Idazlea bera harritu zen jendearen partaide-tza handiaz eta bere baikortasunaz pastorala baten emaitzari buruz. Duela sei hilabete abiatu mugimendua ez da geroztik eten.

Herriaren itxuraldatzeaz hitzegitea menturaz gehiegi da baina Txomin Baxo, Komite Antolatzailerako dionaz «biziki mugimendu gertatu da Donaixtin». Dionaz horri gehitu zaio «gaitzeko giroa». Alabaina, horrelakoa ez da ez Donaixtin ez beste edozein herritan maiz gertatzen. 300 biztanle dituen herrian 100 jokolari taulen gainera ignarazteak argi esan nahi du



«osagarrian den herri guzian nolazpeit parte hartzen ari dela».

Pastoralako jokolariei gehitu behar zaie antolakuntza praktikoetan aritu diren guzikiak. Lan asko bada hor: ostatuen molda-

ztea, aparkalekuen eraikitzea, herria gainditu duen bide trafikua kontrolatzea eta beste hainbeste harreman edo prestakuntza gauza. Jantzien alokatzea, makilen egitea, musikariek-

kin harremanak, apaindura guzikiak lan asko galdegiten dute herriyarrei.

Herriaren bildutasun nabaria Baxok dionaz «biziki inportantea da»: «nahi bada herria bizi



dadien kultur eta ekonomia mailan eta giro bat sortzen delarik kultura mailan, ez da ondorio onik baizik sortzen ahal beste mail guzietan». Pastoralak aitzakia izan da herritik urrundu batzuen berrikusteko herrian lanean. Denak «norabide berarekin lanean ari» urrats handia dela kontsideratzen ahal da.

Beren lana denek atseginekin baina apaltasunez egiten dute, ez baitu inork bere burua horrekin hantzen. Horrela Xemark Urruti, 'süjeta', Garikoitz pertsonai nagusia egin duenak dionaz «konfiantza piska bat hartu du, aisekika ikasi». 'Gidari' izateak ez dio

burua berotzen. Hastapenetik «denak ongi jarraiki dira giro ederren herritarrekin». Prestatze denboraldia «elkarrekin momentu gozoen pasatzekoa» gertatu zaiola aitortzen du eta «horrelakorik ez balitz herrian, orainko bizi moldearekin, ez litzateke elkarretaraterik eta jendea kasik erran daiteke basak bezala bizi daitekeela: beste urte batzuetan hilabete batzuek ikusten ez diren jendekilan orain zortzitik ikusten gara edo maizago». Pastoralak «herriari beste bizi bat emaitzen dio mementoan» eta «gero ageriko direla» emaitzak uste du «denak gogo onez ari baitira».



Herri osoak parte hartu zuen pastoralarekin, eta emanaldia bera Mixel Garikoitz herriaren aintzinean burutu zen, 3.500 ikusleen aurrean. LUZIEZ ETXEZAHARRETA

## Garikoitz euskaldunen adierazle

L.E. / A 3 / DONAIXTI

Donostiako eta Baionako Setien eta Molerres gotzaiek Pastoralaren goizeko meza ospetsuan parte hartu zuten. 'Euskaldun apaiz santuaren' ohorez emandako obrak elizkizunaren antza zuen goizetik. Euskaldun pobrez, Garakoitza baserrian Ibarren, santutasunaren bidera iristea ez dela gertakari txikia izan azpimarratzen du Pierre Molerres Baionako apezpikuak.

«Euskal herriko santu bat, beraz baserriar leinu aspaldikoa-ren fruitu, gizon eta emazte apale, pobre baina errotik kristauak zirenen emaitza: lur honetan fruitu ederraren antzera zohitua» zela dio Mixel Garikoitzetaz.

'Apalatasuna' gaurregun ez da hain gizarte balorea, Euskal Herriaren ere. Pastoral baten gaiak beste zerbait gehiago behar duela bada ustea. Ez da horrekin bat apezpikuak: «borroka handi bat agertu du Pasoralak: Fedearren borroka, zerbait berri ekartzeko duen libere baten da eta bidean oztopo ezustekoak aurkitu dituenaren. Pazientziarekin baina ez obediencia pentasakera gabekoarekin, argitasun handiarekin, fruituak gero ekarri dituen kalitatezko jarrearekin».

Saindu euskaldunaren 'unibertsaltasuna' nabaritzen zaio Molerresi: «are gehiago unibertsala hemen sustraitua delakotz: hala nola bere ikurra guziz unibertsala zen, euskalduntasunaren adierazle zelarik ere: «berehala Jainkoaren meneko jar, itzulera-rik gabe, amodioz», uste dut oso-

timendu erlijiosoa, eta ez da, beraz, bere baitan horri buruzko arrazoinamendurik. «Ez da euskal estiloa sentimendu tragikoan oinarritzen dena» jarraitzen du bere liburuan artista oriotarrak.

«Jakin behar dugu desberdintzen gaurko euskaldunen gogo erlijiosoaren barruan bi sentimenduak: erlijiosotasun etiko bat, katolizismotik datorrena, eta beste bat, sakonagoa, moralarekin zuzenean lotu ezin daitekeena. Garikoitzek maitasunez jarduten duen bitartean, Loiolako Ignaciok maitasunarengatik jarduten du».

Bestalde, eta Oteizari jarraiki, euskaldunon mentalitatearen erlijiosotasuna ez dago erruki, karitate, izua, beldurra, barkamena edo antzeko sentimenduekin lotuta, zuzentasuna eta orekarekin baizik. Eta Mixel Garikoitzengan, hain zuzen, zuzentasuna da santutasun gogoa pizten duena. Txikitlan, klasean kolpatzen zituen irakaslearen kontra bildu eta ernegatzen ditu ikaskideak; jaunartzea egiteko, bere arima izuz betetzen duen jaungoikoa aurkezten diote, eta ez du jaunartzea egiten. Behin, artzaintzan mendian zegoela, barrezka hasten da bat-batean, bake eta amodioz esan nahi du izatearen sentimendu tragikorik eza, eta euskal tradizioa «memoria aktibo» da.

«Horregatik, Garikoitzek duen sentimendu nahasi horiek baztertzeko. Ibarreko santuaren izpirritutasun naturalaren aurrean, Loiolako santuaren erlijiosotasun arro-tza, gaztelarra paratzen du, elkarren kontra, Oteizak.




Mixel Garikoitz.







## XAKEAN



Iruñeko Hiria torneo irekiaren laugarren jardunaldiko partia, 1993ko abenduaren 30ean jokatu. Jose Manuel Redin, 2.205 ELOkoa (Nafarroa)—Santiago Karasusan, 2.270 ELOkoa (Nafarroa).

1) e4, e6; 2) d4, d5; 3) Zc3, Ab4; 4) e5, Ze7; 5) a3, Ac3 xa; 6) c3, c5.

Beltzek badakite nola jo behar duten. Damaren alde sendoa erakitzen ari dira. 7) Zf3, b6; 8) Ab5 xa, Ad7; 9) Ad3, Aa4; 10) 0-0, c4; 11) Ae2, h6; 12) Ze1, Ed7. Hau taularen ikuspegi ederra! Erregea alde horretan ziur baino ziurragoa dago. Errege txuria, aldiz, erasoan beldur da dagoeneko. 13) f4, Dg8; 14) Ag4, Dh7; 15) g3, bZ\_C&: 16) Gf2, aG\_G; 17) Df3, f6; 18) f6, f6; 19) Ge2, f5; 20) Ah5, Zc8; 21) De3, De7; 22) Zf3, Zd6; 23) Ze5 xa, Ze5; 24) f-e5, Ze4; 25) Af3, h5; 26) Ae4, d-e4.

Bikaina! Ikus koadroa. Alfileko zutabea ez dute ireki; peoiaren barnetaketa geroko gorde, bai, eta defentsa zaildu. Baina garrantzitsuen erdiko diagonal da. Alfilarentzat, espazio xamura ('Ac6'tik). 27) Gg2, h4; 28) De2. Alfilari lekua uzteko. Baina peoiari ere... 28) ..., g3; 29) g3, Gh3; 30) Af4, e3. Txuriak, orain, noraezean. 31) Dc4, Ac6; 32) d5, Ad5; 33) Gd1, gG-h8; 34) Gd5 xa, d5; 35) Dd5 xa, Ee8; 36) Ae3, Dd7; 37) Da8 xa, Ef7; 38) Df3, Ee6; 39) Ad4, Dd5; 40) Dd5 xa, Ed5; 41) Ef2, Ee4; 42) Ee2, Gh2; 43) Ef2, Gg2 xa; 44) Eg2, Gg8; 45) Ef2, Ed5; 46) Ef3, Gg4; 47) Ef2, Ge4; 48) Ef3, Gg4; 49) Ef2, Gg6; 50) Ef3, Gc6; 51) EF5; Ee6; 52) Ee3, Gc4; 53) Ed3, Ga4; 54) c4, Ga3 xa; 55) cfm Ga5; 56) Ee3, Ge5 xa. Beltzen maisutasuna agerian geratu da. Txuriek men egin zuten.

## Kondairak dioenez...

Hemen, Berako herrian, kondairak dioenez, ba omen ziren 'lamixene' errekan lami batzuk. Bai, bai, lamiak! Ez duzue sinistuko baina hala dio. Istoria asko daude kondaira honi buruz. Batek dioenez, lami batek mutil bat zorutzen badu, mutil hori harri bihurtuko da, beste batek lamiak mundua laguntzera etorri direla dio, eta abar. Neri kontatu didatenez, senar-emazte bat Berarat bizitzera etortzeko asmotan omen zeuden. Hauek ez zuten ideiarik ere lamiak buruz esaten zenaz. Ezkonberriak ziren eta Antton eta Maria zuten izena. Amaiurkoak ziren eta beste herri batetara bizitzera joan nahi zutelako, etorri ziren honat: Berarat.

Errekaren ondoan zegoen etxetxo polit batean biziko ziren (Gaur egun etxe hori ez dago). Maria, neska eder eta liraina zen, gurasoak baserritarrak zituen eta bera ere, baserrian jaio eta hazi zen. Antton, mutil sendoa, beti txapel bat zerman buruan. Musu gorri-gorriak izaten zituen eta bere ibilkera oso barregarria zen. Bai, bi hauek ezkondu eta herri honetara etorri ziren. Behin, Antton herrira zihoala, zuhaitzez, hezetasunez, iluntasunez eta tristeziak beterik zegoen erreka hartatik igaro behar zuten. Igarotzean, norbait abesten entzun zuten. Bere ingurura begiratu eta inor ez. «Ba! txoratzen hasi izango naiz, nere irudimenak dira, hemen ez dago inor abesten duenik, ni bakarrik nago» zioen berekiko bere burua lasaitu nahirik.

Errekaren murmurioa entzuten zen, Antton oso urduri zegoen. bere urduritasuna ezin zuten kontrolatu. Baina, berriro, ahots polit bat entzun zuten abesti eder bat abesten. «Hemen zerbait gertatzen da!» pentsatu zuten berekiko Anttonek. Kantua entzuten zen lekura hurbiltzen hasi zen; poliki-poliki, ixiltasun osoz, beldurrez eta... oh ez! Antton korrika bere etxeruntz abiatu zen, zer ikusi ote zuen? Nor ote zegoen han? Bai, bai arraozi guztia duzue, lami bat! Badakit gezurra dela pentsatzen duzuela, baina egia da, Anttonek egitazko lami bat ikusteko aukera izan zuen. Etxera ailegaterakoan, Mariari dena kontatu zion. Honek ez zion sinisten eta Antton erotu zela uste zuen.

—Baina nola egon daitezke hemen lamiak? Mesedez Antton, hori ezinezkoa da— esan zion Mariak Anttoni.

—Baietz ba! Nik ikusi dudala! Zenbat aldiz esan behar dizut?—Anttonek desesperaturik.

Horrela eman zituzten orduak eta prduak. Azkenean Maria aspertu eta herriko arraindegira joan zen. Han arraikeariak esan zion:


—Hi, berria haiz ezta?

—Bai—erantzun zion Mariak, gizon horren ahots lodiaz eta errespetu ezaz harrututa.

—Eta ezagutzen al dun lamien kondaira?—bota zion bapatean.

—Lamien kondaira?—esan zion Mariak.

—Bai, hi 'Lamixene' errekararen ondoan bizi haiz ezta? Ba, erreka horretan —jarraitu zuten— lamiak daude, eta lamiek gizonak liluratsen dituzte harri bihurtuz.



## Saioa Ataun Ordoñez

(BERA)



—Baina, hori, egia al da?—Mariak beldururik.

—Bai, bai, noski, zergatik galdetzen dun?

—Ba, nere gizona, hona zetorrela, lami bat ikusi zuela eta lami bat ikusi zuela etorri zitzaidan. Nik, noski —jarraitu zuten Mariak— ez nion sinetsi eta orain, zuk esan didazulako..., bestela, nere gizona erotzat hartzen hasia nintzen.

—Lasai emakume, esaion hire gizonari kontuz ibiltzeko eta kontaion istorio guztia.

—Beno, agur arraikeari jauna eta mila esker zure informazioarengatik.

—Ez horregatik neskatxa, kontuz ibili! Agur! —Agur! —erantzun zion Mariak, eta bere etxerako bidea hartu zuen.

'Lamixenetik' igarotzean, beldurrak menperatu zuten Mariaren gorputza. Mariak, ahalik eta abudoen igaro nahi zuten toki hura, etxera lehen bait lehen ailegatzeko. Azkenean etxean sartu eta han aurkitu zuten Antton etxea garbitzen.

—Barkatu Antton —esan zion Mariak etxera sartu bezain laster, —zure istorioa egia da, hemen, erreka honetan, lamiak daudela diote eta mutil bat, lami batek liluratsen badu, mutil hori harri bihurtuko da, horregatik, zuk kontuz ibili behar duzu.

—Lasai Maria, kontuz ibiliko naiz. Baina,

ikusten nola egia izan zitekeen nik esaten nizona?

—Beno, barkatu —Mariak— Zergatik ez gara herrira buelta bat ematera joaten?

—Bai —erantzun zion Anttonek segidan. Bidean biak hitzegiten ari zirela, Mariak ahots bat entzun zuen hau zioela:

—Aizue, zuek, ei, mesedez hurbildu hona, zerbait esan nahi dizuet.

Ahots hori errekatik zetorrela zirudien, biek, beldurraren beldurrez, baina, kuriositatea jasan ezinez, errekararen hurbiltzea pentsatu zuten. Hurbiltzerakoan lami bat ikusi zuten. Emakume eder bat ahatz hankak zituen.

—Zuen laguntza behar dut —esan zuten lamiak.

—Zertarako? —erantzun zion Anttonek kontu handiz.

—Liluratutako herria harrapatu behar dut, bes-

tela —eta lamia negarrez hasi zen— ezingo naiz nere lagunengana itzuli.

—Eta non dago herri hori? —galdetu zuten Mariak.

—Inguru hauetako kobazulo batetik jarraituz dagoela dakit.

Bilatzen ari zirela Anttonek esan zuten:

—Hemen dago! Hemen dago kobazuloa!

Anttonek kobazuloa aurkitu zuten, belar eta harri tartean zegoen zulo txiki bat zen. Gizakien gorputza etzanta sartzen zen baina juxtu-juxtu. Hau poliki-poliki zabaltzen zihoan gela handi batera ailegatu arte. Orduan, ispilu bat zegoen eta jartzen zuten: «Asmakizun hau asmatzen baduzue, liluratutako herrian agertuko zarete. Hau da asmakizuna: zer da gero eta gehiago kenduz, gehiago handitzen dena?». Ez zuten denbora asko behar izan asmakizuna asmatzeko, erantzuna zuloa zen.

Bapatean ezin begiratu zitekeen argi bat, argi dizdiratsu bat agertu zen. Argitasun hori joan zenean Liluratutako herrian agertu omen ziren. Baina hemen dago misterioa Antton eta Maria ez omen ziren Berara itzuli, zer gertatu ote zen?»

Orain ziur nago zergatik deitzen diogun erreka horri 'Lamixene' galdetuko duzuela. Ba, izen hori gure ahaideek jarri zioten lamiak han bizi zirelako. Orain herri hontara etortzerakoan kontuz ibili, kontuz ibili lamiek.

## Neska bahiketa eta Nafarroako Foru Nagusia

Neska bahiketa ohitura zaharra omen da, nonahi eta edonoiz. Neskaren aitamen baimenik ez, delitu hori oso gertagarria da. Zenbait kasutan ezkon-teko nahitazko lehendabiziko pausua da, eratzunak erostea bezalakoa. Esate baterako, Nafarroan hain ohizkoak diren ezkontzako arrak, zeinak senargaiak emaztegaiari ematen bait dizkio, bahiketaren ordainketa lirateke, ikertzaile baten ustean. Teoria horrekin segituz, senarrak emaztea erosita izaki, andreak emango dituen etekinak senarraren etxean legez geratzekoak dira.

Nafarroako Foru Nagusi zaharrenean ere gaia agertzen da. Egia esan, ez da oso garbi afera tratatzen, oso literarioki baizik. Neska aberatsa izanez gero bakarrik hartzen zuten delitu bat da. Ez da bereizten zer den bahiketa, behartuta etxetik ateratzea, eta zer den onez onean baina izkutuan maitalearekin betiko desageretzea. Zigorrek ere ez dira zehatz mehatz azaltzen, aldiaren epailearen ustezko aldiko aplikatuko zen. Bahitzaile eta bahitua gizar-te-maila berekoak baziren, esposa zitekeen eta delitua zuzenki barkatzen zen. Balizko egoera asko eta asko ez da sikira aipa-

## JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atean joka

Nafarroan hain ohizkoak diren ezkontzako arrak, bahiketaren ordainketa lirateke.

tzen. Aurre informazioa falta zaigu. Ziur aski bahitzailea bilau izanez gero eta bahitua handizkia, epaile subjeto horrek ez zituen esposatuko. Gauza jakina izango zen bilau horrek urkamendira joan behar zuela eta ez zen Nafarroako Erregetzaren papera preziatua gastatzen ibiltzeko modukoa.

Ezin zuten gorputz-zigorrik pairatu kulpadunek. Beraien ondasun guztiak kentzen ohi zizkieten eta senide hurbilenari eman. Gero, adibide praktikoa eman nahirik, Nafarroako lehendabiziko 'movie road' dakar Foru Nagusiak, eta azkena guk daki-gula. Istoria polita, jenero beltzekoa. Luze xamarra da. Holaxe hasten da: 'Zaldun txiro batek etxeoandre bat (dueña dio testuak) hartu eta erresumatik leku-

tzen dira, zaldia besterik ez edukitzeraino. Etxekoandrea zaldi zelan jarrita eta zalduna artolan dihoaz...'. Jenero beltza. Laburbilduz. Zalduna gudari doa gaztelu batera, eta etsaiek etxeoandrea 'birbahitu' nahi diote. Azkenean etsaiek zaldun gizajoa garbitu eta etxeoandrea erregerengana doa laguntza eske. 'Jauna —esaten dio etxeoandreak erregeari— lagun iezaidazu, behartuta eraman ninduen eta alproja hark. Nire senideekin bizi nahi dut'. Erregeak erantzuten dio bizi daitekeela trankil trankil bere senideekin, baina haundun egonez gero hobe duela alde egi-ten badu.

Adibide hori izanda epaileak hiruko erregela aplikatuko zuen. Halako kasuan erregeak hau ezarri bait zion, oraingoa x.





Behoko argazkian, Zaragozako Unibertsitateko arkeologoek aurkitutako aztarnak erakusten. Ezkerrean, buru-hezur bat Auzako ostatuko atarian. OSKAR MONTERO

**N**afarroako Gobernuak, Arraitzen egingo den urtegiak betiko ur azpian utzi aurretik, Abaunzko kobazuloko aztarnak ateratzeko kanpaina antolatu du. Hilaren hasieran hasi ziren Zaragozako Unibertsitateko hainbat irakasle eta ikasle lanean Arraizko (Ultzama) paraje honetan, aurreko urteetan hasitako lanari jarraituz, koban dauden garai ezberdineko aztarna gehienak aurkitu dituzte. Auzako ostatu batean daude guztiak eta bertan aurki ditzakegu hezur pilo baten artean.

## Abaunzko kobako aztarnen atzetik

EDURNE ELIZONDO / **ARRAITZ**

Pilar Utrilla Zaragozako Unibertsitateko Historiaurreko katedraduna da eta, Carlos Lozanorekin batera, arkeologiako hamar ikasle osatzen duten taldea zuzentzen du. Abaunzko kobazuloan ari dira guztiak lanean, hila amaitu arte, bertan dauden aztarnak aurkitu eta kobazulotik atera asmoz. 1976an etorri zen lehenik Pilar Utrilla Abaunzko kobara eta hau, zortzigarrena, ziurrenik azken kanpaina izango da. Pilar Utrillak ez du gogoko egunkarietan ateratzea baina aurkitutakoa argitzera emateko unea ailegatu dela uste du. «Arkeologo asko aztarnaren bat aurkitu bezain pronto komunikabideetan ateratzen dira aurkikuntzaren berri emanez. Ospea eta lanean jarraitu ahal izateko dirua nahi dute. Baina aztarnategi osoa galtzeko arrisku handia sortzen da horrela».

«Ezkutuan aztarnen bila dabiltzanek min handia egiten dute aztarnategietan eta Abaunzko kobazuloan ezkutuko biltzaile

hauen bisita asko izan ditugu», azaldu du Pilar Utrillak. Hori dela eta, azken lau urteetan hauek egindako kaltea konpontzen eman behar izan dituzte lehen asteak. Baina hori ez da okerrean bere ustez. «Auskalo zeren bila datozen honat. Aurkitzen dituzten aztarnak, nahiz eta ez eraman, lekuz aldatzen dituzte eta modu honetan informazio asko eta asko galtzen dugu».

Utrillaren hitzetan Abaunzko kobazuloa oso garrantzitsua da, batez ere oso garai ezberdineko aztarnak aurkitu dituztelako bertan. «Musteriense garaitik, hau da, K.a. 40.000 urtetik K.o. 408 urtera arteko Erromatar Berant Inperioko garai arteko aztarnak aurkitu ditugu». Garai askotako jendea joan zen, beraz, kobazulo honetara bizitzera edo ezkutatzera, Utrillak azaldu duenez. Arrazoia, bere hitzetan, kobazuloaren kokapena bera da, «leku guztiz estrategikoan baitago». Bi haitz handik ixten dute bailara. Beraz, ehizak kobazuloaren aurretik igaro behar zenez, garai hartako ehiztariek au-

keraren paregabea zuten janaria lortu ahal izateko. «Erromatarrek ere, barbaroak Belateko mendetik sartu zirenean, kobazulo honetan ezkutatu ziren». Kobazulotik ateratako pieza guztiak Iratxe monasteriora eramango dituzte bertan gordetzeko, eta piezarik garrantzitsuenak Nafarroako Museoa egongo dira ikusgai azterketa guztia bukatu ondoren.

Arraitzen egin nahi duten urtegiak ur azpian utziko du kobazuloa, eta hori dela eta antolatu ditu Nafarroako Gobernuak aztarna guztiak atera ahal izateko kanpainak zortzi urte hauetan zehar. Pilar Utrillak ez du iritzirik azaldu nahi urtegiaren eta horren koban izango dituen ondorioei buruz, urtegiaren helburua zein den ez baitaki. «Herriren baten edan ahal izateko balitz, primeran irudituko litzaidake urtegia, nahiz eta kobazuloa urpean geratu, baina zelaiak ureztatzen izango balitz, berriz, ez».



## Aukera ona ikasleentzat

E.E. / **ARRAITZ**

■ Abaunzko kobako aztarnak ateratzeko kanpaina Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaz egiten ari da. Irakasle eta ikasleek, hala ere, dohainik egiten dute lan. Ostaturia eta behar duten materiala ordaintzeko erabiltzen dute Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza. Gainera, aurkitutako aztarnak behar bezala ikertu ahal izateko hainbat adituren lana —antropologo, paleontologo eta abarrena— ordaintzen du Nafarroako Gobernuak. Aurten, gainera, aztarnak zein garaitakoak diren ahalik eta zehatzen jakiteko, karbono 14 deritzan proba bako fidagarriagoa den beste sistema bat erabiltzen dute

arkeologoen, AMS izenekoa, eta hori, Britainiar Museoko laboratorietan egiten dute.

Arkeologoen taldeak, beraz, musu-truk lan egiten du. Hau ez da, hala ere, euren lana gogoz eta ilusioz beterik egiteko oztupoa. Bederatziatik ordu biak arte eta arratsaldeko bostetatik zortziak arte aritzen dira lanean, baita larunbat goizean ere.

«Lan guztia taldeka egiten dugu eta egunero lan ezberdina egiteko aukera izaten dugu. Horrela, denetarik ikasten dugu», dio ikasle batek. Guztiek, ordea, piezak garbitu edo sailkatu baino nahiago dute aztarnak bilatu. Aztarnen artean, berriz, hildakoen hezurak maite dituzte gehien.



# «EU handi geratzen zaigu momentuz»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Nahiz eta oraindik datu zehatzik ez izan, inoiz baino jende gehiago inguratu da aurtengo UEUra. Espero zenuten horrelako gorakada?

**KEPA ALTONAGA.**— Aldez aurretik antolatzen duzunean, beti aurikuspen batzuekin jotzen duzu. Azken urteetako zifrak begiratuta, bazirudien gure gailurra seiehunen inguruan zebilela. Aurten ere horrelakorik espero genuen. Baina matrikula epea itxi zenean, bagenituen ja aurreko urteetan

**ALTONAGA.**— Bai, Iparraldekoena nahiko nabaria izan da, igarri egiten delako hizkeraz, belarriak esaten dizu. Aurreko urteetako bilakaera ikusirik, ez nau harritzen gorakadak. Gu Unibertsitatearen munduan mugitzen baldin bagara, oso garrantzitsua da bertoko Unibertsitate Publikoek euskarengan inguruan kezka erakustea. Momentuz NUP gaztea da, eta euskaraz gai gutxi eskaintzen ditu, baina haiekin izandako elkarrizketetan ikusten da jarriera oso aldekoa dela. Horrek giro aproposa sortzen du, eta normalena da jendea ateratzea.

ari gara. Hasieran planteatu zen biologia euskaraz eman ote zitekeen ala ez. Duela bost urte ezin zen planteatu itsasadarrei buruzko monografiko bat, eta orain bai. Adituak baditugu, eta UEUren inguruan mugitzen dira.

**EGUNKARIA.**— UEUko hasierako kezka izan da Euskal Unibertsitatearena (EU), eta joan den astean Jexumari Zalakainek horri buruzko kritika egiten zuen EGUNKARIA n. Esan zuen eztabaida geldirik dagoela. Zer uste duzu honi buruz?

**ALTONAGA.**— UEUren jato-

ikusten duzun zure gune hori, horrek perspektiba konkretuak ematen dizkizu. Sailen arabera, Unibertsitatearen antolaketari buruz ideiak desberdinak dira.

**EGUNKARIA.**— Eta honek tentsioa sortzen du?

**ALTONAGA.**— Pertsonen jarriera nahiko argi daude, eta Zalakainek agertu zuen ideia ez da inondik inora gehiengo batena. Hala ere, inoiz ez dakizu kasu hauetan nork daukan arrazoia. Garbi dago giroa, momentu honetan ez dela horren aldeko.

**EGUNKARIA.**— UEUk epe


«Euskal Unibertsitatearen gaiaren inguruan denok ados gaude oinarrian, baina diferentziak erritmoan daude».

motzera edo epe luzera planteatu behar ditu bere helburuak?

**ALTONAGA.**— Argi dago epe luzeko helburu konkretu batzuk edukitzeak argitu egiten dizula bidea, baina ikusi egin behar duzu egunoroko bide hori zertan gauzatzen den. Nire ustez, momentu honetan UEUn, eta gizartean orokorrean, bada disfuntzio bat faktore biren artean: batetik, dabilzun diskurtso teorikoaren eta, bestalde, zure eguneroko praxiarenean. Orduan, alde nabarmena dago. Euskal Unibertsitatea izan daiteke helburu, baina gaur egun ditugun bitartekoak kontuan hartuta, praxia askoz ere xumeagoa da. Orduan, gure eguneroko jarduna nik zuzenduko nuke EUren zimentarriak ezartzera: bibliografia egokia osatzera; irakasle guztiz prestatuak lortzera; ikasle trebatuak eskuratzera, ohitura unibertsitarioak eratuz. Hau da, egingarriak diren funtzioak. Bestea, momentuz, handi geratzen zaigula esango nuke.

## Kepa Altonaga


UEU-KO ZUZENDARIA



SOSLATA

### Bi urte zuzendaritzan

Udako Euskal Unibertsitatean Iñaki Irazabalbeitiak utzitako aulkian eseri zen duela bi urte Kepa Altonaga, erakunde honen XIX. edizioa bete behar zuenean. Bi urte hauetan erakundeak gora egin du ikasle kopuruei dagokionez, «eta baita ospeaz ere», berak azaldu duenez. Pozik azaldu da gaur amaituko den edizio honen balantzea egitean, eta espezializaziorako joera azpimarratu du, «geroan oso garrantzitsua izango den masa kritikoa osatzen ari delako». Bi urte hauetan ere, Euskal Unibertsitateko bidea izan da eztabaidagai UEUn, baina, Altonagaren usteetan, oraindik urrun samar dagoen helburua da, landu beharreko helmuga.



Kepa Altonaga.

OSKAR MONTERO

baino zenbaki potoloagoak. Horri gehitzen badiogu Iruñean beti etortzen dela bi egunerako edo jendea, ba zazpiehundurik oso hurbil gaude. Alde batetik, ekintza baten arrakasta neurtzeko zenbakiak erabilteza oso arriskutsua izan daiteke, baina era berean adierazgarria da. Jende gehiago edukitzea ez da kalitatearen seinale zuzena, baina bai pentsatu dezakegu programa erakargarriak osatzeko gai izan garela, gora goazela...

**EGUNKARIA.**— Halaber, inoiz baino nafar eta Iparraldeko jende gehiago dago aurten.

**EGUNKARIA.**— Erraza da jende berria erakartzea UEUra?

**ALTONAGA.**— Azken urteotan UEUk halako errekonozimendu zabala eskuratu du erakunde politikoetan. Horrek giro ona ekarri du. Horri gehitzen badiogu sail zehatz batzuetan mugitzen den jendea eraginkorra dela, beren sailetan egiten den gauza asko UEUren inguruan egiten direlako, ba, ondorioz, hainbat adituk badute gure berri eta gure oihartzun, eta jendea erakartzea nahiko erraza izaten da. Gainera, horrekin esparruak zabaltzen dira eta espezializazioa lortzen

rrira joango bagina garbi dago EU lortzeko ideia nagusi izan zela. Nik uste dut UEUk ez duela ideia baztertu. Euskara eta Unibertsitatea txertatu nahian gabiltzala argi dago —'Eginak urre gorri' esaten den bezala—. Baina hor bada beste kontua: erritmoarena. Oinarrian adostasunean mugitzen gara denok, baina diferentziak hortik datoz: batzuen ustez erritmoa azkartu egin beharko litzateke, eta beste batzuren ustez erritmo onean gabilta. Sailen egoerak ere baldintzatzen du iritzi hau: zein sailean zabilzan eta zelan

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

